

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA  
BIZKAIKO EMAKUMEZKO ENPRESARI  
ETA ZUZENDARIEN ELKARTEAREN  
ARTEKO HITZARMENA EMAKUMEEN  
EKINTZAILTZAREN BEHATOKIA  
GARATZEKO.

CONVENIO ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL  
DE BIZKAIA Y LA ASOCIACIÓN DE  
EMPRESARIAS Y DIRECTIVAS DE BIZKAIA  
PARA EL DESARROLLO DEL EL  
OBSERVATORIO EMPRENDIMIENTO DE  
MUJERES.

Bilbo, 2021eko maiatzaren 26a

En Bilbao, a 26 de mayo de 2021

### BILDU DIRENAK

Ainara Basurko Urkiri andrea erakunde horren izenean eta beraren ordezkari gisa, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko maiatzaren 25eko Erabakiaren bidez emandako ahalmenik erabiliz.

Eta, bestetik Carolina Pérez Toledo, Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartearen presidentea, haren izenean eta ordezkari gisa, sozietatearen estatutuetan emandako ahalaren arabera; ahal hori egiaztatuta geratu da Maria Caballero Carragal elkartearen idazkari teknikoak 2018ko apirilaren 9an emandako ziurtagiri bidez.

Aldeek aitortzen dizkiote elkarri honako hitzarmena gauzatzeko beharrezko gaitasuna eta eskumena, eta hauxe

### ADIERAZTEN DUTE:

#### LEHENENGOA

Enpresa berriak sortzea lehentasunezkoa da Bizkaiko Foru Aldundiarentzat. Horregatik, bere erronka nagusien artean dago ekintzailtza-kultura sustatzeko eta

### REUNIDAS

De una parte, Ainara Basurko Urkiri, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia, actuando en virtud de las facultades otorgadas mediante Acuerdo de la Diputación Foral de fecha 25 de mayo de 2021.

Y, de otra parte, Carolina Pérez Toledo, presidenta de la Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia en nombre y representación de la misma en base a las potestades otorgadas por sus estatutos sociales, lo que queda acreditado mediante certificación expedida el día 9 de abril de 2018, por Maria Caballero Carragal, Secretaria Técnica de la Asociación.

Las partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para suscribir el presente convenio y en su virtud

### EXPONEN

#### PRIMERO

La creación de nuevas empresas es una prioridad para la Diputación Foral de Bizkaia que se ha fijado como uno de sus principales desafíos hacer de Bizkaia un territorio que fomente la cultura emprendedora y que ayude a

ekintzaileei beren proiektuak abiarazten laguntzeko lurralde bihurtzea Bizkaia.

Emakumezko ekintzailera bultzatzeko, Bizkaia Egiten 2019-2023 ekimenetan jasotzen den bezala, beharrezkoa da generoaren arabera xehekatutako informazioa izatea eskura eta, haren bidez, jarduera ekonomikoa sustatzen eta enplegu eta aberastasuna sortzen duten emakumeen rola eta balioa balioestea.

## BIGARRENA

Hitzarmen honen xedea da Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteari zuzeneko dirulaguntza izenduna emateko baldintzak eta konpromisoak ezartzea, "Emakumeen ekintzaitzaren behatokia" sustatzeko.

## HIRUGARRENA

Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak (AED) erabakiak hartzen diren esparruetan emakumezko enpresaburuen erreferentia izatea, laguntza sinergikoko sare bar bultzatzea eta enpresaburuen agerikotasuna handitzea du helburu. Bizkaiko emakumeen enpresalidergoa sustatzeko eta indartzeko egiten den jardueretako bat emakumeen agerikotasuna eta Bizkaiko ekonomiari egindako ekarpena erakustea da, baita emakumezko enpresaburuen parte-hartze publikoa handitzea ere, emakumezko enpresa-erreferenteak sortzeko eta genero-hesiak gainditzeko sistema gisa..

## LAUGARRENA

2021ean zehar, Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak "Emakumeen ekintzaitzaren behatokia" mantendu eta garatzeko bideak sustatuko

las personas emprendedoras a poner en marcha sus proyectos.

El impulso del emprendimiento femenino, presente en Bizkaia Egiten 2019-2023, hace necesario disponer de información desagregada por género que permita poner en valor la presencia y el valor de las mujeres como agentes de actividad económica y generación de empleo y riqueza.

## SEGUNDO

Este convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa nominativa a la Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia para promover el "Observatorio emprendimiento de mujeres".

## TERCERO

La Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia (AED), tiene entre sus objetivos ser referente del colectivo de empresarias en los distintos ámbitos de decisión, impulsar una red de apoyo sinérgico e incrementar la visibilidad de las empresarias. Una de las actuaciones que realiza para promover y reforzar el liderazgo empresarial de las mujeres de Bizkaia está destinada tanto a visibilizar su presencia y su contribución a la economía de Bizkaia como a incrementar la presencia pública de mujeres empresarias como sistema de generación de referentes empresariales femeninos y de superación de barreras de género.

## CUARTO

La Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia trabajará a lo largo de 2021 para mantener y desarrollar el "Observatorio emprendimiento de mujeres" como sistema de

ditu. Hala, eskura izan nahi du informazio-sistema bat non bildu eta sortu ahal diren ekintza zehatzei buruzko datuak eta informazioa eta, haietaz baliaturik, ikusgaitasuna ematen zaion emakumeek organizazio-boterean duten egoerari eta berdintasun eta lidergorako politika berriek emakumeengan duten eraginari.

## BOSGARRENA.

Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorraren aldeko konpromisoari eusten dio, eta, horregatik, Ekonomia Sustatzeko Sailaren jarduera guztiak genero-ikuspegia kontuan hartuta eta oraindik dauden desberdintasunak murrizteko neurriak finkatuta egiten dira, batez ere enpresa-munduan.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko xedapen batzuk ezartzen ditu. Beraz, erabakiaren eremuan garatzen diren jarduketek genero-ikuspegia hartu beharko dute kontuan.

Hitzarmen hau izapidetzean otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitako generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena sartu da. Hitzarmen hau idazteko aplikatu dira azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan ezarritako gidalerroak.

## SEIGARRENA

Hitzarmena egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jarduera-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

información con capacidad para recoger y generar datos e información sobre acciones concretas que aporten visibilidad a la situación de las mujeres en el poder organizacional y al impacto de las nuevas políticas de igualdad y liderazgo en las mujeres.

## QUINTO

La Diputación Foral de Bizkaia mantiene su compromiso a favor de la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres y, por ello, todas las actuaciones del Departamento de Promoción Económica se desarrollan teniendo en cuenta la perspectiva de género y fijando medidas tendentes a reducir las desigualdades aún existentes, especialmente en el mundo empresarial.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de este acuerdo deberán tener en cuenta la perspectiva de género.

Se incorpora a la tramitación de este convenio, el Informe de evaluación previa de impacto en función de género previsto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, en cuya redacción se han aplicado las Directrices establecidas en el Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre.

## SEXTO

En la elaboración del convenio se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

## ZAZPIGARRENA

Nahitaezkoa da hitzarmen honen eremua eta horretan gauzatu behar diren alderdiak zehaztea. Hori dela eta, Dirulaguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 20.2. artikuluan xedatuenez, zuzenean eman daitezke Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan ezarritako izendun dirulaguntzak, hitzarmenetan eta dirulaguntza horien araudian ezarritakoaren arabera. 26.1. artikuluan, berriz, hitzarmen horiek dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresnak izango direla xedatu da.

Beste alde batetik, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako 5/2005 Foru Araua garatzeko Dirulaguntzen Arautegiaren (DLFAA) 50. artikuluan ezarri da kasu hauetan dirulaguntza emateko egintza edo hitzarmena oinarri araupetzailatzat hartuko dela Dirulaguntzei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren ondoretarako, eta egintzaren edo hitzarmenaren gutxieneko edukia zehaztu du.

Horrenbestez, aipatutako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz, bi aldeek adostu dute hitzarmen hau sinatzea. Hona hemen hitzarmena arautuko duten klausulak

## SÉPTIMO

Es preciso determinar el ámbito de este convenio y los aspectos que en el mismo se han de materializar ya que la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral dispone en su artículo 20.2 que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia, en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones, y en el artículo 26.1 establece que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones.

Por su parte, el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, en su artículo 50, prevé que en estos supuestos el acto de concesión o el convenio tendrá el carácter de bases reguladoras de la concesión a los efectos de lo dispuesto en la Norma Foral de Subvenciones, y determina el contenido mínimo del mismo.

Así pues, de conformidad con lo establecido en las citadas disposiciones, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, el cual se registrará por las siguientes

## KLAUSULAK

Lehenengoa.-Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak egin beharreko jarduketak.

Hitzarmen honen helburua da Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteari (IFK: G-48804447) zuzeneko dirulaguntza izendun bat ematea, "Emakumeen ekintzaitzaren behatokia" mantendu eta garatzeko.

Hauek dira, hain zuzen, Behatokiaren egingizunak:

-Bizkaiko emakumeen enpresa-lidergoaren egoera eta eboluzioari buruzko informazio objektiboa, fidagarria eta alderagarria lortzea.

-Zerbitzu publikoen eta eragile sozio-ekonomikoen eskaintzan hobekuntzak sustatzeko gomendio eta proposamenak egitea.

-Emakume eta enpresa arloan abiarazitako politika instituzionalen eragina ebaluatzen laguntzea.

-Informazio baliotsua ematea erakundeei eta eragile sozio-ekonomikoei, eta, oro har, herritarrei ere bai.

-Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartearen egingizuna indartzea emakumeen enpresa- eta zuzendaritza-lidergoan erreferente izan dadin.

Bizkaiko Foru Aldundiak, ekintzaitza eta sormena sustatzeko hainbat ekimen bultzatzen ditu, emakume ekintzaileei arreta berezia eskainiz. Hala ere, ekintzaitzaren

## CLÁUSULAS

Primera.-Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto.

Este convenio tiene como finalidad establecer las condiciones y compromisos asociados a la concesión de una subvención directa nominativa a la Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia, con CIF G-48804447, cuyo objeto es el mantenimiento y desarrollo del "Observatorio emprendimiento de mujeres".

En concreto, las funciones del Observatorio son:

-Obtener información objetiva, fiable y comparable sobre la situación y evolución del liderazgo empresarial de las mujeres en Bizkaia.

-Formular recomendaciones y propuestas tendentes a promover mejoras en la oferta de servicios públicos y de los agentes socioeconómicos.

-Apoyar la evaluación del efecto de las políticas institucionales puestas en marcha en materia de mujer y empresa.

-Proporcionar información de valor a las instituciones y agentes socio económicos, así como a la ciudadanía en general.

-Reforzar la posición de AED como entidad de referencia en Bizkaia en materia de liderazgo empresarial y directivo de mujeres.

La Diputación Foral de Bizkaia, impulsa diversas iniciativas dirigidas a promover el emprendimiento y la creatividad, prestando especial atención a las mujeres emprendedoras.

eta enpresa-jardueraren azterketak informazio gutxi du generoaren arabera bereizita. Azken urteetan zertxobait jaitsi bada ere, generoen arteko aldea oraindik ere badago enpresa-esparruan, bereziki, eta, horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du generoaren arabera bereizitako informazio-sistema bat eskura izatea, ekintzailetzaren arloan emakumeek duten zeregina eta garrantzia balioesteko.

Beraz, Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteari helburuak eta xedeak bat datoz emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan enpresamunduan, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailarekin. Horregatik, bidezkoa da Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteari dirulaguntza izendun bat ematea, 2021.ekitaldian “Emakumeen ekintzailetzaren behatokia” garatzeko.

Azaldutako guztiak egiaztatzen du programa honek interes publikoa, soziala eta ekonomikoa duela, eta Bizkairako onuragarria dela, eta deialdi publiko bat ez erabiltzea justifikatzen du, proposatzen diren helburuak lortzeko.

#### **Bigarrena .-Erakunde onuraduna.**

Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak (AED) bete egiten ditu Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra erregulatzeko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan xedatutako betekizun guztiak, dirulaguntzaren onuradun izateko bete behar direnak.

Beste alde batetik, Foru Arauko 13. artikuluaen arabera, ezarritako betebeharrak guztiak bete beharko ditu.

No obstante, el análisis del emprendimiento y de la actividad empresarial cuenta con escasa información desagregada por género. Aunque en los últimos años ha descendido ligeramente, la brecha de género sigue existiendo, especialmente en el ámbito empresarial y, por ello, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible disponer de un sistema de información desagregada por género que ayude a poner en valor el papel y la importancia de las mujeres en el ámbito del emprendimiento.

Existe, por tanto, una coincidencia de objetivos y fines de la Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia con los del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia en el ámbito de la igualdad de mujeres y hombres en el mundo empresarial, por lo que procede otorgar una subvención nominativa a la Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia, para desarrollar el “Observatorio emprendimiento de mujeres” durante el año 2021.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de este programa que redundará en beneficio para Bizkaia y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.

#### **Segunda.-Entidad beneficiaria.**

La Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia (AED), cumple con los requisitos establecidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral para tener la consideración de persona beneficiaria de la subvención.

Por otro lado, la entidad está sujeta al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el artículo 13 de la citada Norma Foral.



Dirulaguntzaren erakunde onuradunak ez du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako debekurik, eta dirulaguntza honen xedea ez da sexuaren ziozko bereizkeria dakarren jarduera edo ekintza bat.

Hitzarmen hau sinatzeak esan nahi du onuradunak baimena ematen duela Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiazta dezan onuradunak betetzen dituela xedapen indardunek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

#### Hirugarrena.-Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau sinatu ondoren sartuko da indarrean, eta 2021eko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango du

#### Laugarrena.-Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa hogeita hamar mila eurokoa (30.000 €) da, hau da, baimendutako aurrekontu kredituaren guztizko zenbatekoa. Aipatu kreditua honako aurrekontu-partidaren kargura da: 08.03/426.106/451.00, 2017/0069 zenbakiko proiektua: "Emakumeen ekintzaitzaren behatokia", 2021. ekitaldiko aurrekontukoa.

Hitzarmen hau sinatutakoan ordainduko da dirulaguntza, eta Elkarteari ez zaio bermerik eskatuko, ez delako antzematen hitzarmen honen bitartez bere gain hartu dituen betebeharrak ez betetzeko arriskurik.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira 2021ean egiten direnak, baldin eta zalantzarik gabe diruz laguntzen den jardueraren izaerari erantzuten badiote eta

La entidad beneficiaria de la subvención no está incurso en ninguna de las prohibiciones para concurrir previstas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la igualdad de mujeres y hombres ni el objeto de esta subvención constituye una actividad o acción discriminatoria por razón de sexo.

La firma del presente convenio conlleva la autorización de la entidad beneficiaria para la comprobación de manera directa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

#### Tercera.-Plazo de vigencia del convenio.

Este convenio entrará en vigor tras su firma y su vigencia se extenderá hasta al 31 de diciembre de 2021.

#### Cuarta.-Obligaciones y compromisos económicos de las partes.

La cuantía de la subvención asciende a treinta mil euros (30.000 €), que es el importe total del crédito presupuestario autorizado. Dicho crédito está designado con cargo a la partida presupuestaria 08.03/426.106/451.00 proyecto presupuestario 2017/0069 "Observatorio emprendimiento de mujeres" del presupuesto del ejercicio 2021.

El pago de la subvención se realizará a la firma del este convenio y no será exigible la prestación de garantía por parte de la Asociación por no apreciarse riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este convenio.

Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, realizados durante 2021, respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada y resulten

jarduera gauzatzeko behar-beharrezkoak badira. Behar bezala justifikatuta egon behar dira, indarrean dagoen araudiarekin bat, eta hitzarmen honetan ezarritako justifikazioaldia amaitzen den egunean ordainduta.

BEZagatik dirulaguntza emango da erakunde onuradunak egiaztatzen badu ezin dezakeela berreskuratu edo konpentsaziorik jaso.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuen arloan kontratu txikietarako indarrean dagoen araudian ezarritako zenbatekoak baino, onuradunak hiru enpresa hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu gutxienez, zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun eta zerbitzuok hornitu edo egiten dituen hainbeste entitatetik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi hori behar bezala azaldu behar da justifikazioan.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira haien arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko hoberena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu behar dira txosten batean.

#### **Bosgarrena.-Erakunde onuradunaren beste betebeharrak.**

Onuradun den erakundeak euskara erabili beharko du diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan, eta bere jardueraren berri herritarrei emateko erabilitako liburuxka, kartel edo beste edozein euskarritan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko ditu.

estrictamente necesarios para su realización. Deberán estar correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor y pagados a la fecha de finalización del periodo de justificación establecido en este convenio.

El IVA será subvencionable cuando la entidad beneficiaria lo abone efectivamente y acredite no ser susceptible de recuperación o compensación.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas para el contrato menor en la normativa vigente en materia de contratos del sector público, la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención, circunstancia que deberá quedar explicada debidamente en la justificación.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

#### **Quinta.-Otras obligaciones de la entidad beneficiaria**

La entidad beneficiaria deberá utilizar el euskara en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada y en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales.



Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak beren gain hartzen du- enpresa-deslokalizaziorik ez gertatzeko konpromisoa, hau da, enpresa-deslokalizazioen kasuan foru-sektore publikoko laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauaren 3. artikuluan aurreikusitakoa. Enpresa-deslokalizazioan eroriz gero, dirulaguntza gisa jasotako zenbatekoak foru arau horretan araututakoaren arabera itzuli beharko dira.

Gainera, entitate onuradunak kontuan izan beharko du genero-ikuspegia proiektua gauzatzerakoan, eta nahitaez bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan honako hauen inguruan ezarritako eginbideak: lan-baldintzen zehaztapena, emakumeen eta gizonen tratamendua eta balorazioa, eta berdintasunaren balioak nola sustatzen dituen bere jardueran. Bete beharko ditu, baita ere, plantilla jakinetako entitate onuradunentzat aurreikusitako eginbideak.

Erakundeak Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan jasotako publizitate aktiboaren betebeharrak ere bete beharko ditu. Arau hori aplikatuko zaio baldin eta aurrekontu-ekitaldi batean gutxienez 100.000 euroko laguntza edo diru-laguntzak jasotzen baditu Bizkaiko Foru Aldunditik, edo urteko diru-sarrerara guztien % 40 foru-laguntza edo -diru-laguntza publikoak badira, eta, betiere, gutxienez, 5.000 eurokoak badira.

La Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia, AED, asume el compromiso de no incurrir en deslocalización empresarial, entendiendo por tal lo previsto en el artículo 3 de la Norma Foral 7/2007, de 27 de marzo, de recuperación de ayudas del sector público foral en el supuesto de deslocalizaciones empresariales. En caso de incurrir en deslocalización empresarial, las cantidades percibidas en concepto de subvención serán reintegradas conforme a lo regulado en dicha norma foral.

Además, la entidad beneficiaria deberá tener en cuenta la perspectiva de género en la ejecución del proyecto quedando obligada al cumplimiento de las obligaciones previstas en el artículo 46 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, relativas a la definición de las condiciones laborales, tratamiento y valoración de mujeres y hombres y el fomento de los valores de igualdad en toda su actividad, así como las previstas para las entidades beneficiarias con determinadas plantillas.

La Asociación también deberá cumplir las obligaciones de publicidad activa contempladas en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de transparencia de Bizkaia que le será de aplicación si durante un ejercicio presupuestario percibe de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos la cuantía de 100.000 euros o cuando el 40% del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen, como mínimo, 5.000 euros.

Seigarrena.-Alderdiek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak.

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan ezarritakoak dira dirulaguntza itzultzeko zio diren ez betetzeak. Halakoetan, jasotako eta frogatu gabeko diru-kopuruak itzuli beharko ditu onuradunak, berandutze-interesak barne.

Era berean, hitzarmen honen ondoriozko betebeharrak ez betetzeak, baita emandako ekarpenak beste xede batzuetarako erabiltzeak ere, jasotako kopuruak, baita bidezko korrituak ere, itzultzeko betebeharra ekarriko lukete; horrelakoetan egin beharreko legezko egintzak egin eta ezarri beharreko zehapenak ezarriko dira, baita sortutako gaitz eta kalteak ordaintzeko betebeharrak ere. Zenbateko horiek, legez ondorioetarako, sarrera publikotzat joko dira.

Behar baino gehiagoko finantzazioa denean beste laguntza batzuk ere ematen direla-eta (maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 18.3. artikuluan ezarrita), bidezkoa izango da behar baino gehiago ordaindutakoa itzultzea, eta berandutze- interesa aplikatuko da.

Baldintzen zati bat betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak dirulaguntzaren ordainketa partziala dakar, betiere erakunde onuradunak konpromisoak argi eta garbi betetzeko jarduketara egiaztatzen bada, edo, hala denean, zati bat itzuli beharko da, guztizko ekintzatik buruturikoaren proportzioa aplikatuz.

Sexta.-Consecuencias por incumplimientos de las obligaciones y compromisos asumidos por las partes.

Los incumplimientos que constituyen causa de reintegro de la subvención son los recogidos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo. En dichos casos, la entidad beneficiaria deberá reintegrar las cantidades recibidas y no justificadas, junto con el interés de demora correspondiente.

Así mismo, el incumplimiento de las obligaciones derivadas del presente convenio, así como la utilización para otros fines de las dotaciones concedidas, implicará la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, con los intereses procedentes, sin perjuicio de las acciones legales y sanciones que correspondan, así como la indemnización de los daños y perjuicios producidos. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a efectos legales.

En el supuesto de sobrefinanciación, por concurrencia con otras ayudas, contemplado en el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, procederá el reintegro por la cantidad excedida, a la que se aplicará el correspondiente interés de demora.

El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de sólo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación de la entidad beneficiaria inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos, dará lugar al pago parcial de la subvención o, en su caso, al reintegro también parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto de la total.

Zazpigarrena.-Jarraipen zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta hartutako konpromisoerik aplikatzekoak.

Elkarteak Bizkaiko Foru Aldundiko organoen egiaztapen-jarduerak onartu behar ditu, eta erakunde laguntzaileekin eta dirulaguntzaren xedeari edo haren justifikazioari lotutako hirugarren pertsonekin batera, Foru Administrazio organoek eta, Erkidegoko araudiaren arabera, finantza-kontrolerako eginkizunak esleituta dituzten organoek eskatzen duten laguntza eskaini beharko du eta behar beste dokumentu eman beharko ditu, Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 41. artikularekin bat etorriz.

Dagokion funtsen aplikazioari buruzko justifikazioa Ekonomia Sustatzeko Sailean egin beharko da 2022ko ekainaren 30ean baino lehenago.

34/2010 Foru Dekretuko 57.artikuluaren arabera justifikazio-kontua; horrekin batera gastuen frogagiriak aurkeztuta baten bitartez frogatuko da ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla, eta dokumentu hauek jaso beharko ditu:

-Jarduera-memoria; memoria horretan, honako hauek jasoko dira: helburuak eta horien betetze-maila.

Aurreikusitako helburuak noraino lortu diren neurtzeko, memoriak, hala dagokionean, sexuaren arabera banatuta eduki beharko du informazioa, salbu eta posible ez den kasuetan: halako zirkunstantziak behar bezala justifikatuta egon beharko du.

Séptima.-Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos.

